

erdiko katera

Nevermind People

Izan ez zen bezala
etorri da Kurt Cobain

“Zatoz zaren bezala” kantatzen zuen Cobainek, eta orain Nirvanaren musika eraberrituta iritsi zaigu. Izan ere, Nevermind People-ek jazz estilora ekarri du Seattle-ko (AEB) hirukotea. Grungearen zikintasuna kendu diote, eta horretarako eskarmentu handiko lau musikarik hartu dute parte. Nirvanaren garaian hazi eta hezitako sortzaile hauek euren gaztaroa oroitzeko aukera izan dute.

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Dani Blanco

KURT COBAINI handi geratu zitzaion Nirvanak izan zuen arrakasta. Nahi ez zuen ospea bereganatu, eta gainbehera pertsonala hasi zen, horrekin batera Nirvanaren mitoa zabalduz. Seattleko taberna eta lokaletan jotzen hasitako taldeak, mundu osora hedatu zituen doinu zikin distorsionatuak. Belaunaldi oso baten ikono bihurtu ziren, eta 1994an Cobainen ahots urratu eta malenkoniatsua isildu zenetik egundaino hamaika artistak bere egin ditu Nirvanaren kanta. Horien artean, jazz musikari euskaldunak.

Ezker-eskuin:
Jorge Abadias,
Hasier Oleaga
eta Aritz
Luzuriaga,
Nevermind
People taldeko
kideak. Ainara
Ortegak ere parte
hartu du diskoan,
baina ez da
zuzenean ariko.

“Bizi izan genuen garai bateko musika da, eta gure nerabezaroa berriz sentitzea bezala izan da” azaldu du Hasier Oleaga Nevermind People taldeko kideak. Jorge Abadias (gitarra), Aritz Luzuriaga (kontrabaxua) eta Ainara Ortegarekin (ahotsa) batera osatu du taldea Oleagak (bateria eta ahotsa), eta ekimen berri honekin Nirvanaren *Nevermind* lan aski ezaguneko bost kantarekin “jolastu” dute *Deconstructing the songs of Nirvana* diskoan. “Sortze prozesua dibertigarria izan da, guztion artean aritu baikara moldaketak egiten





lazko udan hasi zen Nevermind People taldearen abentura. Hainbat emanalditan Beatlesen eta Pat Methenyren bertsioak egin zituen taldeak, baita Nirvanarenak ere. Seattleko taldearen kantekek zuten harrerak animatu zituen bide horretan sakontzera.

eta pentsatzen” dio Oleagak.

Entsegu lokala “laborategi” bihurtu zen, ezagunak diren kanta birsortzeko asmoz. Horretarako osagai ezberdinak erabili dituzte, oinarritzko doinu eta melodiak ahaztu gabe. Talde donostiarraren diskoan ere, kanta aski ezagunak daude, eta denei kutsu eta zapore berriak gehitu dizkiete musikari gazteek. Baina birsortzeko, lehenengo eta behin, kanta ongi ezagutu behar dira. “Hasieran, den bezala jotzen eta gureganatzen dugu abestia. Behin ezagutzen dugunean, egungo eraginekin nahasten saiatzen gara” azaldu du bateria-joleak. Taldeko kide bakoitzak ibilbide musikal zabala dauka, eta esparru eta estilo ugaritan mugitzen dira. Horretaz gain ikuspuntuak ere orotarikoak dira, jazz, rock, pop

edo beste hainbat estilotara zabalduz. “Musika ezberdinak jotzearekin, elkarrekin daukagun musika-mundua elikatu egiten dugu”, borobildu du Oleagak.

2009ko udan hasita

Luzuriagak, Abadiasek eta Oleagak aspalditxotik ezagutzen zuten elkar, Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian aritu zirenetik. 2009ko udan kontzertu ugari atera zitzaizkion hirukoteari, “eta orduan jarri ginen pentsatzen: zer egingo dugu kontzertu hauetan guztietan, korronteak eraman gaitzan utzi ala erreperitorio ezberdinak ateratzeko aprobetxatu? Eta bigarren ideia gailendu zen”. Bakoitzak proposamen ezberdinak eramaten zituen entsegu-sukaldera. Pat Met-

Jazza, eguneratu ala hil

HISTORIKOKI jazzak izan duen esanahia asko zabaldu da gaur egun. Garai batean musika beltzari, swingari edo bluesari lotuta zegoen. Gaur egun ordea, muga horiek guztiak apurtu eta jazz hitzaren esanahia erabat zabaldu da. Mundu guztian entzuten den musika da, eta lekuan lekuko ñabardurak hartzen ditu bere gain. Hala ere, jazz inprobisazioan oinarritzen den heinean, edozein estilo izan dezake osagai. “Gaur egungo musikari handi bati entzun nion musikan ez dagoela estilo edo etiketarik. Bi musika mota baino ez

daude: ona eta txarra. Horiek dira etiketa bakarrak” dio Hasier Oleagak. Hori kontuan hartuta, jazz edozein koloretan imajina dezakegu, eta hortik gurean grungearekin ere nahastu izana.

Jazza eta rockaren arteko lotura bogan jarri duena Brad Mehldau pianista gaztea izan da. Bere disko eta kontzertuetan Beatles, Radiohead, Massive Attack edo Soundgarden bezalako taldeen bertsioak egiten ditu piano soilaren laguntzarekin. “Gaur egungo musikara egokitu ala hil” leloa jazzari ere ezarri ahal zaio.

henyren edo Beatlesen diskoak eta erreperitorioak hartu eta euren erara moldatzen zituzten kontzertuetarako. Nirvana ere moldatzen zuten zuzeneko emanaldi horietan, eta azkenean diskoan bilduta geratu direnak *Nevermind* diskoko bost kanta ezagun izan dira. “Nirvanaren kantutegiak harrera ona izan zuen jendearen artean. Jendeak eskertzen zuen Methenyren musika zuzenean entzutea, baina zailagoa zen saltzeko eta entzuteko” dio Oleagak. “Kontua da, Nirvanaren monografikoa berriagoa zela, eta guri adierazteko abagune handiagoa eskaintzen zigun”. Kanta apurtu eta hain ezaguna dena jazzaren eremura ekartzeko ahalegina errazagoa egin zitzaion, Methenyrekin edo Beatlesek egitea baino. Seattleko hirukotearen musika ere bere garaian bizi izan zuten gainera, eta noski, “musika eta bizipenak ezin dira banatu”.

Zuzenekoak eta estudioko lana ordea bai, banatu daitezke, eta hala egin dute Nevermind Peopleko kideek. “Diskoa grabatzeko garaian, zuzenekoan har genitzakeenak baino arrisku musikal gutxiago hartu genituen”, Oleagaren hitzetan. Ainara Ortegari ere

“Bizi izan genuen garai bateko musika da, eta gure nerabezaroa berriz sentitzea bezala izan da”

HASIER OLEAGA, NEVERMIND PEOPLE

laguntza eskatu zioten. “Bere jakituria eta ahalmena gure esku jarri zuen Ainarak, baina horren aurretik eta ondoren hirukote ginen, eta hala jarraitzen dugu”. Diskoa 2009ko udan bertan grabatu zuten, abuztuaren 18an Zubietako Irigoyen baserrian, nahiz eta argitalpena 2010eko ekainean etorri den.

Geltokia, besterik ez

1991n Nirvanak kaleratu zuen *Nevermind* diskoak hamabi ereserki zekartzan, eta horietatik bost berrinterpretatu eta apurtu ditu talde donostiarrak. Gainerako zazpiak apurtzen jarraituko ote duten edo ez, garbi utzi du Oleagak: “Geure artean esaten dugu hau geltokia dela, besterik ez. Hurrengo geltokia beste disko monografiko bat, edo gure musikarekin jarraitzea izan daiteke”.

Uneren batean behar komertzialik izanez gero, agian beste zerbait egingen luketela zehaztu du Donostian bizi den bilbotarrak, “baina ez diogu gure buruari halako mugarik ezartzen, hala sortu baita momentu jakin batean. Guretzat musikan aske eta libre sentitzea da garrantzitsuena”. ■

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia